

# PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

15-12-22 16.ALEA

## Ura, altxorra eta arriskua

4. ORR. ►►

Atxulondoko  
lanak

7. ORR. ►►

Joan Fabrega-rekin  
hizketan

8. ORR. ►►

Kirol Astea  
iruditan

11. ORR. ►►



## EDITORIALA

# 400 urte, eta aurrera!

Berezia izan da azkenak dituen 2015 urtea. Urteurren borobil batek markatu du: 400garrenak. Zizurkilen herri aitortzatik 400 urte igaro dira, eta ospakizunetan argi ikusi zen gisan, bizirik jarraitzen dugu, titularrak dion bezala, aurrera egiteko gogoarekin!

2015ak aurpegi berrietako kultur etxea utzi digu. Baina berehala etorriko dira aldaketa handiagoak, liburutegi berriarekin. Herritarrentzako espazioak zabaltu eta hobetzea da erronka, eta horretan urrats garrantzitsua izango da. Etorkizuneko Atxulondo marrazteko urtea izango da datorrena, eta zuekin egin nahi dugu, herritarrekin.

2015 hau hauteskunde urtea izan da.



Ondorioz talde berria dago Udalean. Batzuk joan dira eta besteak etorri. Datozen lau urteetan, bakoitzak bere ideietatik, elkarlana nagusitzea da gure nahia. Udal gobernutik eskua zabalduta dago horretarako eta uste dugu posible izango dela, guztion onerako baita.

Baina Udala ez da ezer herri bizirik gabe. Herritarrek egiten dute Zizurkil bizia. Gertuen direnak aipatzeagatik, hori argi ikusiko da Olentzeroren etorreran, bigarren urtez egingo den ekitaldi koloretsua herritarren parte hartzeari esker. Edo Urte zaharreko krosa ere hor dugu, bi elkartek elkarlanean antolatua. Herri mugitu

mendu bizia da herri hobe baten bermea. Eta bide horretan, urtearen errepasoa egitean, ezin dugu ahaztu herri antzerkiak utzitako irakaspena: 100 zizurkildarretik gora proiektu eder eta anitzean. Hori da bai bidea!

Ez da zalantzarik, gabon egunak bereziak izaten dira. Gertuko ondoan gozatzeko ditugu, dela senide, dela lagun... Gure animo eta besarkada handiena gertuko baten hutsa nabaritu duzuen guztioi, eta ongi etorria aurtun aspaldiko partez senideekin gozatu duzuenoi.

Eta nola ez, zizurkildar denei, gabon zoriontsuak eta urte berri on!

## 400 años, y un futuro por delante

2015 ha sido especial, al tratarse del año del cuarto centenario desde que nos reconocieron como pueblo.

El año 2015 nos ha dejado una casa de cultura con cara renovada y accesible. Y muy pronto, tendremos una nueva biblioteca. El objetivo es am-

pliar y mejorar los servicios y espacios para los y las zizurkildarras, y en ese empeño continuaremos.

Este año 2015 ha sido el año de la renovación de la Corporación municipal. Deseamos que los cuatro años venideros sean de trabajo en común, y

creemos que es posible. Pero el Ayuntamiento no es nada sin un pueblo vivo. Y eso lo hacéis vosotros, los y las zizurkildarras, como se comprobará en la bienvenida a Olentzero y en el cross de San Silvestre, por mencionar dos eventos cercanos.

La época navideña suele ser especial para la gran mayoría, por lo que queremos enviar un caluroso abrazo a los y a las zizurkildarras que notaréis la falta de algún ser querido. Y cómo no, Gabon zoriontsuak eta urte berri on guztioi!



## ALBISTEAK

# Saharar herriari laguntza

Azaroko plenoan, Zizurkilgo Udalbatzak aho batez onartu zuen Saharar herriari ezohiko dirulaguntza ematea. Urrian Mendebaldeko Saharan gertatutako uholdeek kinka larrian utzi zituzten herritarrak: milaka lagun etxerik gabe geratu dira, eta gordetako elikagai mordoia hondatuta. Kontuan hartu behar da 1975 ean Marokok martxa berdearen bidez egotzi zituenetik, 180.000 saharar giza laguntzaz bizi dira Argelian, Tindouf hiritik gertu kokaturik dauden errefuxiatu guneetan.

Egoera honetan, EH Bilduk proposamena eraman zuen udalbatzara. "Zizurkilek konpromiso sendoa du garapeneko laguntzekin. Euskal Fondoaren bidez, bereziki El Salvador-en

bultzatzen ditugu proiektuak, Meanguera bertako herriarekin senidetuta baikaude 90eko hamarkadatik. Oraingoan ordea, iruditzen zitzaigun sahararrei keinu bat egiteko unea zela", azaldu du Eva Usandizaga internacionalismo eta giza eskubide zinegotziak. Horrela, Zizurkilgo Udalbatzak, aho batez, ez ohiko 500 euroko dirulaguntza onartzea erabaki zuen. Era berean, zizurkildarrei bando bidez Saharar herriaren egoeraren berri eman zitzairen. Azkenik, Zizurkilgo udalbatzak saharar herria kolonizatua dagoela salatzen du eta autodeterminazio eskubidea duela aitortzen du. "Sahararrak beren herrira burujabe itzultzea da irtenbidea" dio onartutako testuak.

## Ayuda al pueblo saharaui

El pleno de noviembre decidió ayudar al pueblo saharaui para hacer frente a los daños causados por las inundaciones de octubre. Desde el año 1975, 180.000 saharais viven en el destierro, en campamentos de refugiados, tras la colonización marroquí de su tierra. Ahora, las inundaciones han destruido lo poco que disponían en dichos campamentos.

Atendiendo a las llamadas de ayuda, la corporación

municipal de Zizurkil aprobó por unanimidad una moción de EH Bildu. Se concedió una ayuda de 500 euros y se decidió informar a los y las zizurkildarras sobre la situación que viven en los campamentos. Para finalizar, el texto aprobado remarca que la solución al conflicto en el Sahara se resolverá cuando el pueblo saharaui vuelva a su tierra y ejerza el derecho de autodeterminación.

3



## Ataria Irratia Zizurkildik zuzenean

Abenduaren 11ean Atxulondo kultur etxeko sarrera bihurtu zen Tolosaldeko Ataria. Bertatik zuzenean egin zuen saioa Ataria irratia: Joxe Mari Luengo alkatea, Zubimusu Ikastolako eta Otañoko ikasleak, Teodoro Hernandorena elkarteko kideak, Juan Manuel Erasun Ziotza Pilota Eskolako kidea, edota Unai Mendizabalen bertsoez gozatu ahal izan zen.

## San Millango haurrak elikagai bankuan

Zizurkilgo elikagai bankuak laguntzaile bereziak izan ditu abenduaren. San Millan eskolako haurrak izan ziren elikagai sortak egiten. Esperientzia honen bidez, eurak bezalako haurrak oinarritzeko elikagaien beharrea daudela ohartzeko aukera izan zuten. Errealitate ikusezin horren jakitun izateaz gain, egoera horretan dauden familiei laguntzeko ekarpena ere egingo du San Millan eskolako komunitateak, hurrengo janari banaketarako esnea erosiko baitute. Janari bankuak, ohi bezala, Zizurkilgo bolondresen bidez egin du urteko azken banaketa.

Los alumnos y alumnas de la escuela San Millan, han colaborado en el banco de alimentos



# 4 Uholdeak ekiditeko lan egitea

*«Zizurkilgo uholde arriskua ezabatzeko lanen bigarren fasea egin behar da, Asteasu erreka»*

Martxan da Oria ibaian urak berbideratzeko lehen fasea baina ez da aurreikusitako obra garrantzitsuena. Gaiaz sakonago jakin nahi izan dugu Plazaberrin.

Ez da berria Villabona eta Zizurkilen uholdeak ekiditeko proiektua. 2012an, ordea, Eusko Jaurlaritzan aldaketa eman zenean proiektua zatitu zuten. "Jaurlaritzaren Ura agentziak du autonomia erkidegoen ibaien ardura. Zuzendaritza berria sartu zenean, lehen proiektu bakarra zena bi zatitan banatu zuten, arrazoi ekonomikoengatik. Orain Villabonan eta Zubimusun egiten ari direna faserik merkeena da", azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak. 3 milioi euroko aurrekontua du uneotan martxan den faseak. Obra ga-

rrantzitsuena ordea, 12 milioi eurokoa da, Zizurkil aintzat hartzen duen obra. Arrazoi ekonomiko hutsa izan da orain bestea egitea. "Ikusirik uholdeekin arazoak daudela, zeozer egitea nahi zuten baina guk argi esan behar dugu: Proiektu hau ez da Zizurkilen arazoen irtenbidea" azpimarratu du Luengok.

## Zubia Zabaldur

Fase honetan, Villabona izango da bereziki onuraduna. "Villabonan ur zikinekin arazo handia zegoen, eta lan honek Adunako araztegiarekin

lotu dituzte Villabonako etxe guztietako ur zikinak, egoten den usaia nabarmen murriztuz. Hori da egiten ari diren lan bat. Bestetik, urte hasieran hasita Zubimusu zubiko bi begi berritu eta handitu egingo dituzte, bi izkinakoak hain zuzen. Lan horiekin Ura agentziaren arabera, uholde arriskua gutxituko da. Baina argitu behar da hori bereziki Villabonan izango dela eta ez Zizurkilen", zehaztu du Luengok. Hori dela eta eskaera argia du Zizurkilgo Udalak. "Guk Zizurkilgo beste fasea egitea eskatzen dugu behin eta berriz,



# Udalak bere osotasunean a eskatzen du Udalak

5

legealdi honetan egitea da gure helburu nagusienetakoa baina zoritxarrez ez dago gure esku. Uneotan Urumea da Ura agentziaren lehentasuna, arazo handia dute inguru horretan eta komunikatiboki arreta handiena bertan dagoenez, han ari dira lanean bereziki”.

Momentu honetan egiten ari diren lehen faseko lanik nagusienak urte hasieran hasitea aurreikusten da. “Zubiko lanak orduan hasiko dira eta trafikoa ere moztuko da. Oinezkoentzat ia beti egongo da irekita baina ez kotxeentzat”. Obrak Ura agentziak ordainduko baditu ere, Zizurkilgo Udalak hainbat gastu izango ditu. “Auto eskola lekualdatu behar dugu 6 bat hilabetez, obraren zati nagusienean. Zarata handia izango

da, kotxeentzat bidea itxita... Auto eskola batentzat ezinezkoa da funtzionamendua. Lokala bilatua dugu Udal bulegoen ondoan eta diru partidak jasota dago horretarako”, azaldu du alkateak. Beste arazo bat sortu da ordea, azken asteetan. “Ura agentziak erabili egin nahi du auto eskola dagoen Bentatxuri etxebizitzaren ondoko lur zatia. Hor lurjabeekin egin behar den akordioa Udalak ordaintzeko eskatzen dute baina hasieran ez zuten proiektuan horrela jaso. Negoziatzen ari gara. Aurrera etxe parean, autobus geltokiaren atzeko lur zatian ura nabarmen higitzen ari da eta bertan harri horma bat egitea eskatzen diegu, makinaria egokia hemen izango dute-

nez. Hori eginez gero, Udalak bere kargu hartuko luke gastu hori. Akatsa beraiek egin zuten eta besterik gabe ezin dugu onartu”. Guztira udalak 10.000 euroko gastua aurreikusten du auto eskolaren leku aldaketa eta lur zati horren kudeaketan.

## Uholde arriskua

Alkateak ez du zalantzarako tarterik uzten. “Oraingo lanak eginda ere, Zizurkilek uholde arrisku ia berbera izango du. Gure inundabilitate kota ez da apenas mugituko. Horregatik egin behar dugu gogor Zizurkil bete betean hartuko duen fasea egiteko, bai Udalak eta alderdi guztiek”. Eta zer lan aurreikusten ditu Zizurkilgo Asteasu Errekan egingo litzatekeen

faseak? Teodosio bota zen lekutik paper fabrika artekoa da proiektua. “Erreka agerira aterako litzateke eta ubidea zabaldu egingo litzateke. Erreka agerira ateratzeak errepidean norabide aldaketa ekarriko luke. Papertegi inguruan ere Oriarako sarrera nabarmen zabalduko litzateke. Horrek denak ekartzen du lan hauek garestiagoak izatea, baina Zizurkilek hori behar du. Erreka irekia izateak garbitzeko arazo gutxiago ekarriko litzuke, eta ubidea zabaldua, uholde arriskua ia desagertuko litzateke”.

Dena den, lan horiek egin bitartean uholdeen aurkako hainbat neurri hartu dira Udaletik. “Duela 4 urteko uholdeen ostean hainbat neurri hartu ziren. Nagusia

«Urte hasieran hasita, Zubimusu zubiko bi begi berritu eta handituko dituzte. Trafiko mozketak izango dira»

## Gipuzkoako Urak-ekin hitzarmena berritzear

Zizurkilen, Uraren kudeaketa Gipuzkoako Urak kontsorzioak darama. "Zerbitzu integrala ematen digu gaur egun. Konponketa, proiektuak, ur zikinak eta bai alta eta bajen kudeaketa", zehaztu du Joxe Mari Luengo alkateak. Erakunde publikoa da Gipuzkoako Urak, Gipuzkoako Udalen %86ak parte hartzen du bertan, hitzarmenen arabera zerbitzu ezberdina jasoz kontsorzioetik. 2015-2019 legealdian, Zizurkil administrazio kontseiluko kide da.

10 urterako hitzarmena du egun indarrean Gipuzkoako Urak-ekin Zizurkilgo Udalak. Datorren urtean amaitzen da. "Berritzeko asmoa dugu, adostasun zabala dago horren inguruan Udalean. Eskatu diegun bakarra da abian dituzten lanak amaitzeko. Gaur egun Salugarateko depositua txukuntzeko lanetan ari dira". Gipuzkoako Urak kontsorzioarekin lanean hasiz geroztik, hoditeriaren egoera eta zerbitzua nabarmen hobetu dela uste du Zizurkilgo Udalak.



Inguru hau aldatzea ekarriko luke Asteasu erreka bideratzeak.

papelerarekin adostutakoa da. Paper fabrikako presa da Zizurkilen uholdeetan eragile bat. Orain Udala gainean egoten da eta arazoak egon daitezke ikustean presa igotzeko eskatzen diegu. Enpresarentzat ez da erabaki gustagarria baina nahiko ondo ari gara funtzionatzen. Presa garaiz

ireki behar da ura joateko, berandu irekitzen bada eta Oria goitik badator, tope modukoa egiten du eta ura ez da behar bezala joaten. Momentuz 2011z geroztik izan diren euriteetan sistema honekin moldatu gara okerragorik gabe, baina argi utzi behar da ez dela irtenbide definitiboa.

## El Ayuntamiento exige acometer el proyecto del encauzamiento del río en su totalidad

Están en marcha los trabajos para el encauzamiento de las aguas en el Río Oria pero esta es sólo la primera fase de un proyecto más amplio. "En 2012, el gobierno vasco separó en dos el proyecto inicial. Lo que se está acometiendo ahora, es la fase menos costosa económicamente", explica el alcalde Joxe Mari Luengo. Las obras que están en marcha tienen un presupuesto de 3 millones de euros. Sin embargo, la segunda fase, es la que atañe a Zizurkil en su totalidad, tiene un presupuesto de 12 millones de euros.

"Realizar la segunda fase es nuestra prioridad, esas obras solucionarán nuestros problemas de inundabilidad."

En esta primera fase, Villabona es la más beneficiaria. "Tenían un problema con las aguas fecales de parte del municipio, y con estas obras las conectarán a la depuradora de Aduna reduciendo el olor. Por otra parte, desde principios de año, comenzarán a renovar y ampliar dos ojos del puente Zubimusu, las dos de las esquinas. Esos trabajos reducirán un poco la cota de inundabilidad,

pero en especial en Villabona" remarca Luengo. Los trabajos finalizarán a finales del 2016 y habrá cortes en el tráfico. "Estamos hablando con los comerciantes para trasladarles la información que recibimos del gobierno vasco, serán unos meses difíciles aunque nos han asegurado que el paso peatonal en Zubimusu estará casi siempre garantizado", explica Luengo.

### La segunda fase

La segunda fase de las obras de encauzamiento que exige el Ayuntamiento

de Zizurkil contempla a Asteasu Erreka en su paso por Zizurkil. "Desde donde estaba la casa Teodosio hasta la papelera. El río saldría a la vista y se ampliaría el cauce, desviando la carretera unos metros. Y en la papelera se ampliaría considerablemente la entrada al río Oria. Estos trabajos harían desaparecer la cota de inundabilidad. Serían los trabajos definitivos para que en Zizurkil no haya más inundaciones. Hay un consenso respecto a la necesidad de esas obras y debemos trabajar para ello", remarca el alcalde.

## KRONIKA

# Atxulondo kultur etxea, irisgarria eta aurpegia garbituta

Diru laguntza egokia iritsi denean egin ahal izan dira lanak

Atxulondo kultur etxearen irisgarritasuna urteetan atzeratu den obra izan da. "Aski jakina da Zizurkilgo Udalaren egoera ekonomikoa zein den eta bereziki zein zen Udala hartu genuenean. Horrek egiten ditugun obra guztiak diru laguntza dezente batekin egitera behartzen gaitu eta Atxulondo kultur etxea irisgarri bihurtzeko laguntzak exkak izan dira aurtengo arte. Jaurlaritzak aurtengo-

rako erabaki zuen obren ia erdia finantziatzea eta hori ikusita egin ahal izan dira lanak", azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak.

## Igogailua eta komunak

Lan nagusia igogailua jartzea eta komuna osotatzea berritzea izan da. Honek tabernari zati bat kentzea ekarri du sarrera handituz. "177.500 euroko gastua izan da azkenean eta diru laguntza 70 mila euro

*«Igogailuarentzat egin den hormako goiko zatian erlojua jarriko da»*

ingurukoa. Aurtengo ordea, diru laguntzaren zati txiki bat ordainduko digute soilik eta hurrengo urtean gainontzekoa, beraz Udalak aurreratu du", zehaztu du Luengok.

Lan nagusiak horiek izanik ere, obrak eraikina txukuntzeko ere baliatu dira. "Pintatu egin da aurreko horma eta kolorea emateko leiho batzuk baliatu dira. Argiteria ere aldatu da, LED argiak jarri dira eraikin osoan lehen zeudenen partez. Horrek efizientzia energetikoan irabaztea ekarriko digu. Azken lan bat ere falta da: Igogailuarentzat egin den hormako goiko zatian erlojua jarriko da. Joxe Arregi plazan lehen bazen eta berreskuratu egingo da", azaldu du alkateak.

## Bulandegiko bizilagunekin batzarra

Datorren abenduaren 29an, iluntzeko 19:00etan Zizurkilgo Udalak batzar batera deitu ditu Bulandegi auzoko bizilagunak eta baita interesa duen herritar oro ere. Bulandegitik igarotzen den errepidearen egoera kezka iturri da bai bizilagunentzat eta bai Udalarentzat. Arlo honetan egin diren ekimenen berri ematea da batzarren helburua.

## Eta etorkizunean, zer?

Liburutegia Atxulondo kultur etxetik ateratzeak fase berri irekiko du kultur etxearentzat. "Aurrera begira, Atxulondoko proiektu definitiboa egin nahi da. Hori herritarrekin egin nahi da. Komunikazio eta parte hartze batzordea ari da ekimena lantzen".



## La casa de cultura Atxulondo, accesible y con la cara renovada

Los trabajos para mejorar la accesibilidad de la casa de cultura se han retrasado durante años. "Es pública la situación económica del Ayuntamiento de Zizurkil, en especial la situación que encontramos hace

cuatro años. Por ello, todas las obras importantes hay que acometerlas mediante subvenciones, y hasta este año las ayudas para mejorar la accesibilidad eran escasas", explica el alcalde. Este año la subvención

abarca casi la mitad del presupuesto.

La principal obra ha sido la colocación del ascensor y la renovación de los servicios. Eso ha obligado a reducir el espacio del bar y se ha ampliado la

entrada a la casa de cultura. Sin embargo, no ha sido el único cambio. "Se ha pintado la fachada y se ha dado color a algunas ventanas. Además, se ha cambiado todo el alumbrado con bombillas LED, más eficientes".



# Joan Fabrega, Lladoko alkatea: “Ez dugu urteetan horre orain dena pikutara bid

Joan Fabrega Zizurkil senidetuta dagoen Lladó herriko alkatea da 2007tik eta Esquerrako diputatua maiatzaz geroztik. Zizurkilera egin duen txangoa baliatuz, Kataluniako prozesuaz hitz egin du Plazaberrirekin.

8

**2015a urte garrantzitsua izan da Kataluniako prozesuarentzat. Nola laburbilduko zenuke?**

Urte historiko gisa izenda-tuko nuke. Irailaren 27ko hauteskundeetan emaitza bikaina lortu genuen. Ez ahaztu: Lehen aldiz, Kataluniako parlamentuan gehiengoa independentista da bete betean, 72 diputatu ditugu estatua sortzeko hitza eman dutenak.

**¿Eta zer espero duzu 2016az?**

Espero dugu 2016an gobernu sendoa izango dugula Junts Pel si koalizioak eta CUP-ek akordioa lortuta, estatuarekin deskonexio prozesua hasteko. 18 hilabeteen gauzatu behar dugu deskonexioa.

**Kataluniako independentzia prozesuan momentu garrantzitsua da hau. Gobernua osatzeko negoziazioak zailak izaten ari dira. Nola eragiten ari da hau independentismoan?**

Lehenengo, ezker alternatiboan kokatuta dauden (CUP) eta eskuinean dauden (Convergencia) negoziaketek ezin dute errazak izan. Ez dira lau egunean lortzen. Pertsonalki uste dut akatsak egiten ari garela irailaren 27az geroztik, baina akats hauek garrantzitsuak izango dira ikas dezagun eta ziur indartuta egingo dugula aurrera.

**Izan ditzagun kontuan aukera guztiak: Hauteskundeak aurreratuko balira, zer?**

Benetan uste dut, Kataluniako independentzia babesten duten alderdiek emaitza onak aterako lituzketela. Ez daramatzagu hainbeste urte horrelako ahalegina egiten urrats txar batetik dena pikutara bidaltzeko.

**Gobernu akordioa lortzen bada, zer urrats emango dira jarraian?**

Argitu nahi dut, nire ustez, gobernu akordioa izango dela, zalantzarik gabe. Behin gobernua eratuta, dagoeneko badugu parlamentaren lege bat estatuarekiko deskonexioa aurreikusten duena, gainera lege hori ehunka Udalek ere onartu dugu. Legeak Kataluniari Ogasun Agentzia sortzea ahalbidetzen dio bere ondasunen kontrola izan dezan. Horrela ekingo diogu gehienez 18 hilabetera gauzatuko den deskonexio prozesuari, gure herriak subirau-tza osoa lor dezan.

**Bistan da Madrildik prozesua eragozteko ahaleginak biderkatzen ari direla. Zer puntura arte geldiaraziko zaitezte?**


Estatu imperialista eta koloniala da Espainia, modu aktiboan (Auzitegi konstituzionala, goren...) eta pasiboan (Godó-ren komunikabide eta talde editorialak, La Caixa...) beldurra eta segurtasun eza eragin nahi digute Kataluniako herritarrei. Baina ez dute lortuko.

**Estatuarekiko desobedientzia aipatzen da, deskonexioa... Jarrera sendoa al da prozesuko agente guztien aldetik?**

Desobedientzia dagoeneko ari gara aurrera eramaten hainbat erakundeetan, esaterako ehunka Udaletan 3 urte daramatzagu horretan. Mota guztietako salaketak jaso ditugu. Adibidez, Espainiako gobernu ordezkariak 4 aldiz salatu du Lladó-ko udala: Kataluniako ogasunari ordaintzeagatik Espainiakoari beharrean, AMI izena duen independentziaren aldeko Udal elkarteko kuota ordaintzeagatik, Kataluniako independentziari babesa adierazteagatik... Gaur egun, bostgarren salaketa baten zain gaude Espainiaren deskonexio prozesua aldarrikatzen duen adierazpena babesteagatik.


**Plano pertsonalera pasaz, katalan gisa, nola ari zara bizitzeko urte hauek?**

Garai historiko baten moduan, ilusioz beteta politikaren lehen lerroan egotea egokitu





# elako ahalegina egin altzeko”



zaigulako. Hemen bat egiten dute gure aiton amonen borroak, gure gurasoen beldurrek eta gazte ugariaren ilusio eta ingenuitateak *Itaca*-ra iristeko. Independentistok, 300 urtetan amestu duguna betetzea litzateke.

## Zer ikasi duzue bide honetan?

Oinarrizko kontzeptu bat eta askorentzat ezezagun dena: Herria. Zalantzarik gabe, herria izan da prozesua josi duen indarra, politikoak bidean aurrera bultzatu dituen eta bidetik atera ez zitezen lan egin duena. Indar erakustaldi

## «Herria izan da prozesuaren indarra»

transbertsala izan da, behetik gorakoa, estatuaren orain arteko oztopoak gainditzea ekarri duena.

## Eta ez bada helburua lortzen?

Gaur egun ez dugu hori aurreikusten eta ez dugu aurreikusi nahi, herri oso baten ahalegina izugarria izaten ari baita, konpromiso eta ilusio handiarekin. Gaur egun bi-dearen amierara iristea espero

dugu. Kontrakoa, zulo beltz batera erortzea litzateke.

## Zuen esperientziatik, zer ikasi beharko genuke euskaldunok Kataluniako prozesutik?

Herrien askatasuna jendeak egiten du, prozesua jendeak egin behar du, bai Katalunian eta baita Euskal Herrian ere. Borondate argia badago eta herria batera mugituz gero, ez dago hori gelditzerik.

## ¿Euskaldunongandik babesa sentitzen al duzue?

Ez da kontua babestuak izan edo ez, elkarguneak izatea baino. Hizkuntzaren defentsa, herri zapaldu bati maitasuna, zure kulturari maitasuna, gizarte bidezkoago baten ametsa... Uste dut helburu horietan elkarren babesa dugula, beti egongo garela bata bestearekin. Zizurkil eta Lladó esaterako, zerk batzen ditu? Galderaren hasieran esandako kontzeptuak erreparatzen baditugu, ikusiko dugu erabateko babesa dagoela.

9

## Joan Fabrega, alcalde de Lladó: “No aceptaremos que un mal paso tire por la borda el proceso”

Joan Fabrega es el alcalde de Lladó (Girona), pueblo hermanado con Zizurkil. En este momento clave para el *procés* catalán, Plazaberri ha hablado con Fabrega aprovechando su reciente visita a nuestro municipio. Fabrega, califica el año 2015, como histórico. “En septiembre tuvimos un resultado fantástico, con una mayoría independentista clara por primera vez en el Parlament. Tenemos 72 diputados comprometidos con la creación del Estado catalán”. Preguntado por los próximos meses su respuesta es clara: “Esperamos que salga un gobierno fuerte de las ne-

gociaciones entre Junts Pel Si y la CUP para empezar la desconexión con el Estado español. Estoy convencido que habrá acuerdo”. Reconoce la dificultad de las negociaciones, pero el alcalde de Llado remarca que los acuerdos entre la gente de la izquierda alternativa y la gente de derecha como Convergencia no pueden ser fáciles ni se puede hacer en 4 días. Personalmente creo que todos los errores que estamos cometiendo servirán para que aprendamos y reforzarnos para el futuro”, matiza.

### Optimista

Joan Fabrega es optimista.

“No llevamos tantos años picando piedra para que cualquier mal paso tire por la borda todo el esfuerzo realizado. Se formará gobierno y tenemos una ley aprobada en el Parlament de Catalunya de desconexión del Estado español, que ha sido secundada por cientos de ayuntamientos. Una ley que dota a Cataluña de Agencia Tributaria y que permite que tenga el control sobre todos sus recursos. Así empezaremos la desconexión que en un máximo de 18 meses nos tiene que llevar a la soberanía total de nuestro pueblo”. Sabe que desde el Estado español no habrá faci-

lidades, pero sigue firme en su idea: “Por ejemplo, la delegada del Gobierno ha denunciado al pueblo de Lladó hasta 4 veces. No nos amedrentan”, finaliza.

En el plano personal, así define Fabrega el proceso. “Lo vivo como una época histórica, ilusionado de poder trabajar desde la primera línea política. Aquí se junta la lucha de nuestros abuelos, los miedos de nuestros padres y la ilusión, la ingenuidad y la valentía de nuestros jóvenes. Es la culminación de un sueño que llevamos esperando los independentistas desde hace más de 300 años”.



ALBISTEA

# Badator **olentzero** Zizurkilera!

**Zizurkildarrek, iaz egin zioten Olentzero eta Maridomingiri harrera lehendabiziko aldiz. Aurten ere berriro etorriko dira bisitan. 17:30etan abiatuko dira Urkamenditik Joxe Arregi Plazara bidean.**

10

Iaz arte, Olentzerok eguerdi partean egiten zuen Zizurkil-en sartu-irtena, Elbarrenan zein Zizurkil Goian kantuan aritzen ziren hurrei bisita egiteko. Joan den urtean ordea planak aldatu zituzten Olentzerok eta Maridomingik: goizean lanpetu xamar ibiltzen zirela eta, arratsaldean gerturatu zirela jakinarazi zieten Udalarari. Aurten, berriz ere harremanetan jarri dira Kultura Batzordearekin, eta iaz gure txikienek prestatu zieten etorrera asko gustatu zitzaizenez, Zizurkilera etortzeko asmoa adierazi dute.

Urkamendi inguruko borda batean bazkari legea eta lo kuxka egin ostean abiatuko dira Elbarrena aldera. Gabon gaueko lanak buru-tzeko ezinbestekoak dituzten laguntzaileekin egingo dute bidea.

## **Zenbait aldaketa txiki**

Kultura batzordeak, Zubimusu Ikastolako zein Pedro Mari Otaño Ikastetxeko guraso elkarteekin, Bukalai dantza taldearekin eta Loatzos musika eskolarekin batera antolatu

du Olentzero eta Maridomingiren ongietorria. Dena prest da jada.

Iazko esperientziatik ikasiz, aurtengorako aldaketa txiki batzuk egin dituzte: Batetik, Olentzerori, bazkalosteko sies-ta labur xamarra egin zi-tzaio-la eta, irteera ordua atzeratu egin dute. 17:30etan abiatuko dira Urkamenditik, eta 17:45ak inguruan Joxe Arregi Plazara iristea espero dute. Bidean, eguna iluntzea espero da, baina, Pedro Mari Otaño-ko eta Zubimusu Ikastolako gurasoek antortzekin argituko diete bidea. Era berean, joan den urtean, astoa izutu egin zen plazan horrenbeste jende ikusita, eta erreka bazterreko barandilan lotuta utzi behar izan zuten. Olentzero eta Maridomingiren hitzetan, urte honetan zehar asko ikasi omen du astoak, jendearekin egoten ohitu omen da, eta horrelako arazorik ez izatea espero dute.

## **Herritarrek partaide**

Joxe Arregi plazan itxaron-gu diete herritarrek Olentzero,

Mari Domingi eta euren laguntzaileei. Hala ere, bidean zehar itxaron nahi dutenentzat, plazaraino egingo duen ibilbidearen berri eman dute: esan bezala, Urkamenditik abiatuko dira Azken Portu aldera. Hemendik, errepidea gurutzatu eta futbol zelai atzekaldeko bide gorritik egingo dute aurrera plazaraino iritsi arte. Behin bertan dauela, Olentzero eta Maridomingi estenatokira igoko dira. Jarraian, Bukalai dantza taldeko dantzariak hiruzpalau dantza eskeiniko

dizkiete, eta Loatzos Musika eskolako ikasleek euren musikarekin eskertuko diete bisita. Honen ostean, haur eta helduek "Ole Olen-tzero" gabon kanta abestuko diete etorri berriei.

Guzti honen ondoren, Olentzero eta Maridomingik mikrofona hartu eta hitz ba-tzuk esango dituzte. Eta amai-tzeko, txikien txanda izango da: Olentzero eta Maridomingik magalean hartu eta gabon gauerako dauzkaten desioak entzungo dituzte.

## **Ongi etorri a Olentzero y Maridomingi**

El día 24 por la tarde, Olentzero y Maridomingi se acercarán a la Plaza Joxe Arregi, para estar con los más pequeños y escuchar sus deseos. Partirán desde Urkamendi y se dirigirán hacia Azken Portu. De ahí cruzarán la carretera y avanzarán por el bidegorri hasta llegar a la plaza. Se prevé que lleguen hacia las 17:45, ya que saldrán de Urkamendi a las 17:30. Los dantzaris de Bukalai les aco-

gerán con un par de bailes. Y los músicos de Loatzos también les deleitarán con sus instrumentos. Después pequeños y mayores cantarán el villancico "Ole Olentzero" que han aprendido en las escuelas para la ocasión. Para finalizar, como no, los más pequeños tendrán la oportunidad de estar con Olentzero y Maridomingi y comunicarles sus deseos para la Nochebuena.



# Kirol Astea argazkitan

2015eko Kirol Asteak utzitako zenbait irudi bildu ditugu hemen. Ohi bezala, arrakastatsua izan zen gau krosaz gain, irudi gehiago utzi zituen asteak.



Zizurkilgo hainbat emakume kirolarik mahai inguru interesgarria eskaini zuten Atxulondo kultur etxean.



Dozenaka haur Intxaur frontoian elkartu zen joko eta kirol ezberdinak probatzera.



Halterofilian Danena taldekoen abileziaz gozatu ahal izan zen, neska eta mutil.



Joseba Otaegi zizurkildarra Urrezko Aizkorako finalerako txartela lortu zuen herritarren aurrean.



Zizurkilgo V. Pilota txapelketako finalak jokatu ziren giro ederrean.

HERRITARREN TXOKOA

# LOURDES COLOMO



## “Ihesbide modukoa zelako hasi nintzen korrikan”

2015eko Gau Krosa gauzatu bezperan bildu da Plazaberri Lourdes Colomorekin. Eta hara, hurrengo egunean helmugaratu zen lehen emakumea izan zen, bigarren urtez jarraian.

### Noiz hasi zinen korrikan?

Orain dela 6 urte hasi nintzen, beste lagun batekin batera. Ama gaixo jarri zen orduan eta ihesbide modukoa zen niretzat. Igandetan bakarrik ateratzen nintzen. Lilatoiera parte hartzea animatu ninduen korrikako lagunak: Adin guztietako emakumeak zeudela, giro polita izaten zela... eta bai, giroa gustatu zitzaidan. Pixkanaka lasterketetan parte hartzen hasi nintzen; era berean, nire senarrak ni ikusi eta batzuetan nirekin ateratzen da.

### Erraza egiten al zaizu entrenamendua egunerokoarekin uztartzea?

Tira, nire kabuz entrenatzen dut: ez daukat entrenamendu zehatzik edota entrenatzailerik. Gaur denbora daukat? Ba aterat-

zen naiz; eta ez badaukat, ba egun horretan ez naiz ateratzen.

### Zein lasterketa dituzu gustuko?

Errepideko lasterketa motzetan ateratzen naiz, 10 kilometro edo motzagoak normalean. Entrenamenduak ere motzak egiten ditut; Asteasuko bidegorria atsegin dut horretarako, eta han ibiltzen naiz goizari kendu ahal diezaiokean denboraren arabera. Behobia ere egin dut, baina normalean motzagoak egiten ditut. Mistoak ere egin ohi ditut senarrarekin; horiek ere gustuko ditugu biok.

### Bereziak egiten al zaizkizu Zizurkilgo Gau Krosa eta Urte Zaharrekoa?

Gustatzen zaizkit herrikoak direlako. Kanpora joaten gara beste lasterketara eta herrian ere parte hartzea gustatzen zait. Iaz Gau Krosa irabazi nuen eta polita izan zen.

### Urtea amaitzera doa eta atzera begirakoa eginez

### gero, zer nolako urtea egin duzu korrikan?

20 bat lasterketa inguru egingo nituen; gustora geratu naiz. Mendikoa ere probatu dut aurren. Aitziber Ibarbiak animatuta, Zegamako maratona joan nintzen zozketa batean dortsala egokituta. Bukatu nuen, hori zen nire helburua, eta gustora. Besteren bat ere egin nuen mendian baina nahiago dut errepidea.

### Zizurkilen bazaudete korrikan punta-puntan ibiltzen zareten emakumeak... pikea ba al duzue elkarren artean?

Ez, ez daukagu pikerik. Bata besteari laguntzen diogu, lagunak gara-eta. Gainera, askotan lasterketa mota ezberdinetan ateratzen gara Aitziber eta biok.

### Gero eta emakume gehiago ikusten dira korrikan. Zergatik dela uste duzu?

Kirola egiteko motibatuago daude eta emakume asko errazago moldatzen dira korrikarako denbora ateratzeko. Txirrindan ate-

ratzean denbora gehiago behar duzu baina korrikan, esate baterako, 20 minutu egin ditzakezu. Beste kiroletan ere ikusten dira emakumeak baina bereziki korrikan esango nuke, bai.

### Eta datorren urteari zer eskatzen diozu?

Lesiorik ez edukitzea, osasuna eta aurren bezala jarraitzea. Ez daukat helburu handirik lehiari dagokionez: lasterketa bukatu eta ondo ateratzen bada, hobeto.

### Esaiguzu...

### Zizurkilgo pertsonaia bat

Malli Usabiaga nire lehengusua datorkit burura

### Zizurkilgo leku bat

Zizurkil Goia leku lasaia da

### Zer du faltan Zizurkilek?

Elbarrenako errepide nagusiaren konponketa, zulo gehiegi daude.

### Eta zer du soberan?

Kalean utzitako zaborrak



# B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria  
Herritarren Parte Hartze  
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:  
SS-1118-2011

Harremanetarako:  
plazaberri.zizurkil@gmail.com  
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,  
Teodoro Hernandorena 6,  
20.159 Zizurkil.  
Tel. 943-691012  
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,  
20.159 Zizurkil.  
Harrera Orokorra  
Tel. 943-693066  
Kultura, Euskara, Hezkuntza,  
Gazteria y Kirola Saila  
Tel. 943692495  
Fax 943-693674.